

## Gero eta sagardo hobia

Hori ari da egiten  
Iñaki Begiristain ▶ 2-3



## Partiduari buelta eman eta Tolosak irabazi du

**4-1** ▶ Beti Gazte aurretik jarri zen, baina tolosarrek lau gol sartu zituzten, horietako bi Lasak

**LIDER** ▶ Goren Mailako lidergoan bakarrik jarri da, Ordiziak ez zuelako irabazi Trintxerpen ▶ 5



Tolosako futbolariak atzo partidua hasi aurretik berotzen. JOXEMI SAIZAR



JAIONE ASTIBIA

## Gerontologikoaren zalantzak salatuz

**TOLOSA** ▶ Arazoari benetako irtenbidea emateko deia egin die plataformak alderdi politikoei; era guztietako jendea bildu zen atzo ▶ 6

### TOLOSA ▶

## Hotza eta euria nagusi izan dira azokan

Gazta berria izan zen berrikuntza ▶ 6

### IBARRA ▶

## Partaidetza handia izan da X. Elkartasun Aerobik Maratoian

99 lagunek hartu zuten parte atzo Belabieta kiroldegian ▶ 7



NOELIA LATABURU

UZTURRETIK ▶  
RAMON OLASAGASTIEuskal  
Herria  
elurpean

**E**lurrak berdindu ditu Santurtzi eta Uitz, Erremendia eta Plentzia. Negua negu doa Euskal Herri osoan eta termometroak paretsu dabilta Ezpeletan nahiz Abaltzisketan. Ama Birjina martxokoak (hilaren 25ean) bentzituko omen du negua, eta orduan aseko omen dira behiak larrean eta kukuak ere egun horretan joko omen du Erromako Zubian. Alegia, udaberria kukuarekin etorriko dela zeropean kuzkurtutako Euskal Herri hau goxatzera.

Hotz beldur handirik gabe, lau egun barru abiatuko da Korrika Orreagatik eta ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, Euskal Herri osoa zeharkatuko du, Cascantetik Mauleraino eta Bernedotik Zierbanaraino, ia-ia kukuarekin batera, martxoaren 20an, Bilbora iristeko.

Andra Maria martxokotik hamabosgarrenera kukua ez badator idia eta gurdia hartu eta Erromako Zubira haren bila joateko dio gure beste esaera zahar batek.

Korrikako antolatzaileek ere horixe eskatu digute: kukua kantuan noiz hasiko zain egon gabe, haren bila joan gaitzela, euskaraz ikasi eta hitz egiteko pausoa eman dezagula, Euskal Herria euskalduntzeko konpromisoa norberarengandik hasten dela...

Betikoa da ordea: batzuek entzungo dute kukua, beste batzuk, ni ere bai leloa entzunda, abiatuko dira korrika Erromako Zubiaren bila, ea kukua han den.

Baina beste askok eta askok ez dute entzungo, edo, are okerrago, entzungor egingo diote eta gaztelarera habia erosoan kukutuko dira.

Eta halaxe, kuku bat joan, bestea etorri, urrun, oso urrun izango da Gesaltza eta Lizartza parekatuko dituen negua. Eta aldiz, gertu, gero eta gertuago, adibidez, Barakaldoko Ikea eta Madrilgoa edota Bordelekoa berdindu dituen elurtea.

Eta harek bai, azpian harapatuko gaitu guztiok.



## Irurarrak 1929. urtean ospatutako Euskal Festan

**ARGAKI ZAHARRA** ▶ Trikitixaren inguruan buruko painelu, txapela, abarka, espartina, soineko, alkandora eta jantzi dotoreak erakusten dituzte irurarrak hauek. 1929an ateratako irudia da.

Euskal Festa horrela jantzita joateko motiboa. Koadrila handia bildu zen urte hartan festa giroan eta umore onean. Ondo pasatuko zuten. ZILUT. 'IRURAKO HISTORIA' LIBURUA

## IÑAKI BEGIRISTAIN ▶ SAGARDOGILEA

«Zorionez, gaur egun  
gero eta sagardo hobea  
egiten da gurean»

Zazpi urte dramatzatza Begiristain sagardotegiaren buru eta mundu hau «oso gertutik» bizi izan du txiki txikitatik; txotx egitearen artean maisua da, beraz

## NOELIA LATABURU

Ikaztegiatiko Begiristain sagardotegiko ardura eramaten du Iñaki Begiristainek, bere osabaren lekukoa jaso zuenetik. Begietako begirada lotsatia beldurrik gabe galtzen du Idiazabal bizi den gaztea sagardoaz diharduenean. Betidanik estuki lotuta egon da mundu honetara eta bizitza osoa kupele artean eman du, bere familiarengandik jasotako eragina dela eta. Sagardotegiaren burutza duen lanaz jardun du HITZAREKIN eta dastatzaile onaren oinarriak azaldu dizkigu. **Nolatan aukeratu zenuen lanbide hau?**

Mundu honetan hezi izan naiz eta hau da hobekien ezagutzen

dudana. Nire ingeneritza ikasketak amaitu nituen, eta osaba jubilatzerako zihoanean erabakia hartu behar izan nuen: ikasketak ala sagardoa. Oso pozik nago hartu dudana bidearekin. **Zein da zehazki sagardogile batek burutzen duen lana?** Sagardoaren prozesu guztia kontrolatzea. Lehen sagarra biltzen denetik, hilabete eta erdiren ostean, sagardoa kupeletan dagoen arte ikuskatu behar dago. Sagar hauetakoa batzuk inguruko baserrietakoak dira, gainontzekoak hemengoak bertakoak dira.

**Zeren arabera lortzen da sagardo ona?**

Prozesuan egiten den lana da funtsezko gakoak, bai era aukeraturako sagarren arteko na-

hasketa proportzionatua da. Eguzkiak, noski, laguntzen du uzta ona lortzen.

**Zein alderdi hartu behar dira aintzat sagardoa dastatzera-koan?**

Dastatzeko garaian, hiru pauso dira ezinbestekoak. Lehena, begiradarekin egiten dena da, hau da, edaria edalontzian dagoenean ateratzen duen aparra eta kolorea. Bigarrenik, sagardoa ahuruntz eramaten duzunean duen usaina aztertu behar da eta, azkenik, garrantzitsuenak zaporea da.

**Kupelen arteko alde nabaritzen al da sagardoa dastatzeko-koan?**

Noski eta uste dena baino gehiago gainera. Kupelak bere ukitu propioa ematen dio sa-

gardoari. Horrela, zaporea, usain eta gorputz ezberdina lortuko dugu, barrikaren arabera eta hori edaterakoan nabaritutako du.

**Euskal Herrian arrakasta handia dute sagardotegiak. Non dago gakoak?**

Giroa ezinbestekoa da. Ohiko jatetxeetan mahaian eseri eta kafea hartu arte ez zara altxa ere egiten. Sagardotegian, berriz, eserlekutik altxa eta zure lagunez gain, inguruko jendearekin ere erlazionatzen zara. Bizitasun berezia ematen dio honek. Gainera, kupela ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera izaten da, generoa alderatu eta denen arteko konbinaketa ere egin dezake pertsonak.

**Zenbateko irteera ematen diozu zuk ekoiztutako produktuari?**

Guk orokorrean partikularrekin egiten dugu lan. Honekin batera, Tolosa eta Zumarraga artean dauden inguruko supermerkatu, elkarte eta tabernetara ere banatzen dugu sagardoa. Salmontez gain, zenbait lehiaketatan hartu izan dugu parte: Goierriko festetan izaten gara, Azpeitiko lehiaketan eta Foru Aldundiak antolatzen duen lehiaketan ere. Hemen lehenengo saria eskuratu genuen 2002an, eta 2003an, berriz, bigarrenak izan ginen.

IRITZIA ▶ MARIO ZUBIAGA (EHU-KO IRAKASLE TOLOSARRA)

19/98+

**A**urtengo urtea, 2005a salbuespen-urtea izango da. Poliziak eta epaileek sei urtean lanean jardun ondoren, datozen hilabeteetan 18/98 sumarioari eta hurrengoiei dagozkien ahozko epaiketak hasiko dira. Sei urte hauetan dozenaka atxiloteta, agerraldi, espetxeratze eta bestelako jarduketak egin dira, Zuzenbide Estatuak eman beharko litzuzkeen bermeak behin eta berriro urratuz. Ahozko epaiketa horiek salbuespenezko auzitegi batean egingo dira, Espainiako Auzitegi Nazionalan, hain zuzen ere, eta Euskal Herriak jasaten duen isilpeko salbuespen-egoeraren ondorioak agerian geldituko dira berriro ere:

- 220tik gora lagun auzipetuta.
- Fiskalak 1.102 urteko espetxe-zigorra eskatzen du 18/98 sumarioan auzipetutako 62 lagunentzat.
- 645 urteko espetxe-zigorra eskatzen du Haika-Segi sumarioan auzipetutako 42 lagunentzat.
- 1998az geroztik sumario horien-gatik jarritako fidantzen zenbatekoa 4.393.000 erukoia izan da (\*).
- Dozenaka lagun izan dituzte espe-

txean hainbat hilabete eta urtetan. 40k espetxeak jarraitzen dute eta, horietatik, 19k laster beteko dituzte lau urte behin-behineko espetxealdian.

- Tortura eta tratatu txar larrien salaketak egin dira hainbat atxilotetatik

- Lau hedabide itxi dituzte: *Egin*, *Egin Irratia*, *Ardi Beltza* eta *Euskaldunon Egunkaria*.

- Hainbat erakunde itxi dituzte, elkarrekin politiko eta sozialak legez kanpo utzi dituzte eta beste asko susmoan jarri dituzte.

#### Guztia ETArekin lotu dute

Prozedura hauetako oinarri bakarra Poliziaren tesi bat da, inolako frogarik ez duena oinarritzat. Tesi horren arabera, Euskal Herriko erakuntza sozial eta nazionalarekin zerikusia duten ekimen sozial eta politiko guztiak lotura dute ETArekin. Instrukzioa ez da epaileek egin, Poliziak baino, eta salbuespenezko epaitegi batean egin da, gainera. Prozesu sorta horrek euskal gizartearen erro sakonak dituzten egitasmo eta ideologia politiko eta sozial-jazarpeneren penala dakar, beraz.

Denbora asko igaro da, Espainiako Gobernuak bultzatuta, Auzitegi Nazionalak jarduketa hauei ekin zienetik. Horrekin batera, denbora honetan zehar sumario ugari pilatu dira, eta, horren ondorioz, gaur egun nolabaiteko nahasmena eta desinformazioa dago euskal gizartearen, euskaldun askoren oinarritzko eskubideen eta askatasun zibikoaren urraketa dakarten prozesu horien inguruan. Gainera, prozesuon ondorioek herritar guztiengan dute eragina, zeharka bada ere. Izan ere, prozesu hauen hedadurak eta ondorioek auzipetuta dauden pertsona eta erakundeak baino haratago iristen dira. Eskubide zibilen urraketak euskal gizarte osoa kaltetzen du eta, gure

iritziz, gizartearen egitekoa da herritar guztien eskubide eta askatasun guztien alde egitea, kaltetutako pertsonen ideologiarekin bat etorri ala ez.

#### Erantzun zabalaren beharra

Erantzun zabal eta askotariko hori sortzea eta koordinatzea izan da 18/98+ Lan Taldearen helburua. Kutsu politiko nabarmena duten epaiketaren hauen guztiaren azpian datzan Poliziaren tesiari euskal gizarteak ezet esaten diola erakutsi nahi izan dugu. Donostiako Kursoalean egindako bilkuraren oihartzuna eta Bilboko kaleetan otsailaren 26an bildutako jendetzak bide onetik goazela erakusten digute.

Garzteen aurkako epaiketa amaitzer dagoen honetan, asteotan epaitegian ikusi eta entzundakoek biziki kezkatu gaituzte. Garzteen absoluzioa eta beste epaiketa guztiaren bertan beharrezkoa izan beharko litzateke kurpil zoro honen amaiera logiko bakarra. Dena den, hala behar balitz, eskubide zibil eta politiko guztiaren defentsan jarraitzeko konpromisoak indarrean dirau. Zuen, gure, denon eskubideen defentsan ari baikara.

#### ESKUBIDEAK

«Eskubide zibilen urraketak euskal gizarte osoa kaltetzen du eta gizartearen egitekoa da eskubide eta askatasun guztiaren alde egitea»

#### PERTSONALA ▶

▶ Tolosaldeko jaioa ▶ 1973eko urtarrilaren 21an ▶ Ingenieritza teknikoa ikasi du ▶ Txikitatik sagardotegian lanean aritua ▶ 1998an Begiristain sagardotegiaren ardura hartu zuen ▶

**Txuleta ala bixigua? Txuleta. Sagardoa ala ardoa? Sagardoa. Sagardotegia ala jatetxea?** Biek dituzte bere ezaugarriak, baina sagardotegiko xarmarekin geratzen naiz. **Sagardo onaren sekretua?** Batez ere sagar nahasketa egokia lortzea.

#### DASTAKETA

«Sagardoa dastatzeko aintzat hartu beharreko ezinbesteko ezaugarriak aparra, kolorea, usaina eta zaporea dira»



#### Asteburu hauetan lanez gainezka ibiliko zarete.

Sagardotegi garaiaren hilabete nagusienak otsaila eta martxoa dira, Aste Santua baino lehen. Aurten lehenago da eta apirilaren ere izango da lana, baina lehen esandako bi hilabete hauen erdia. Orain jendeak astebete baino gehiagoko aurre-rapenarekin hartzen du lekua. Urtarrilaren dagoeneko mugimendua hasten da, baina motelagoa.

#### Bezeroarekiko harrera ere zaindu behar al da?

Beti ere gertutasuna eskaintzea eskertzen dute bezeroek. Gu guztira bederatzi langile ari

gara lanean; ni dena kontrolatzen, parrilan beste bat, sukaldetan beste bat, sukaldatzen beste bi, txotxean ere bat eta zerbitzen hiru. Baina gure menua ohikoa da: tortila, bakaila, txuleta eta arkumea burruntzian enkarguz jartzen dugu.

#### Non aurkitzen da sagardorik onena?

Gaur egun hemen inguruan sagardo oso ona egiten dela esan daiteke, gero eta hobe gainera, gaitzerdi! Sagardotegi guztiak dute kupelaren bat ona eta beste batzuk gehiago. Ezin-go nuke galdere hori zehatz erantzun.



NOELIA LATABURU

EKONOMIA ▶

# Foru Aldundiak 41,2 milioi euro emango ditu aurten Tolosalderako

Oria ibaia, errepideak, bidegorriak, kultur, kirol eta gizarte ekipamenduak, adinekoak, ezinduak... lagunduko ditu



Usabalgo kiroldegiko lanen egoera atzo; hau bezalako ekipamenduak lagunduko ditu Aldundiak. J.SAIZAR

## JOXEMI SAIZAR

Duela gutxi aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak 2005eko aurrekontua. 641 eurora igotzen da eta horietatik 351 herrialdeko 88 herrietara joango da, inbertsio eta gastu zuzenarako. Tolosaldeak 41,2 milioi euro —aurrekontuan 35,8 eta ez-ohiko planean 5,4— jasoko ditu aurten eta hurrengo-etan 41,3 milioi euro —konpromiso kredituetan 36,3 eta ez-ohiko planean 5— aurreikusuten dituzte. Tolosak aurten 9 eta hurrengo ekitaldietan 4,9 milioi euro jasoko ditu.

Tolosaldean egingo diren inbertsio nagusien artean, kopururik handiena garapen iraunkorreko hitzarmenak (11 milioi euro) jasoko du. Ondoren errepideetako mantenu lanak (4,9 milioi) eta pentsioak (2,5) datoz.

Bi mila biztanlelik beherako herri batzuk —Tolosaldeko 15: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Ikaztegieta, Larraul, Lizartza eta Orendain— 1,2 milioi euro jasoko dute lurralde antolaketa etaletik.

Gizarte Politikan ere kopuru

garrantzitsuak destinatuko dira gure eskualdera, guztira 8,8 milioi: 4,1 adineko pertsonen arretan —Iurreamendi, Santiago, Fraisoro eta San Cosme egoitzekin komenioak, etxez-etxeko laguntza, egunezko zentroak...—, 3,6 ezinduentzat —Uliazpi Fundazioaren mantenua—, adinekoen egoitzetan plazak sortu eta egokitzeko...

Landa ingurunearen garapenerako ere diru partida batzuk iritsiko dira: nagusia landare erosketa eta landatze-ko, larreak hobetzeko, baso bideak egiteko...

## INBERTSIO NAGUSIENAK ▶

Gaiak	Kopurua
Errepideen mantenu lanak	4.923.798
Garapen iraunkorreko kontsortzioko hitzarmena	11.044.953
Bidegorriak-Mugikortasun eramangarria	480.000
2.000 biztanlelik beherako herrietzat	1.257.984
Pentsioak	2.524.717
Ezinduei arreta ematea	3.632.343
Adinekoen arreta	4.135.995
Landare erosketa eta landatzea	601.760
Mintzola ahozotasun zentroa (Villabona)	200.000
Ipupomamua ipuin parkea (Asteasu)	131.000
Ekipamendu eszenikoa (Tolosa)	450.000
Usabalgo kiroldegiko eraikina	500.000
Iurreamendi egoitza birgaitzea	749.038
Fraisoro egoitza birgaitzea (laborategia eta egoitza)	1.100.000

Aipatzeko diren beste laguntza batzuk hauek dira. Gureak tailerrak (343.135), Tolosaldea Bus (160.000)...

Aurrekontutik aparte, konpromiso kreditu batzuk ditu Foru Aldundiak eta garapen jasangarriaren atalean, Oria ibaian kolektorea eta araztegia egiteko 36,3 milioi euro izango dira.

## Ez-ohiko plana

Aurrekontutik aparte, ez-ohiko planean beste 5,4 milioi euro daude. Hor azpiegituretan 1,9 milioi aurreikusten dira: GI-2131 Alegia-Ordizia, GI-2632 Beasain-Alegia eta GI-2130 Berastegi-San Anton errepideak sendotzea eta lehen bietan segurtasuna hobetzeko.

Ekipamenduen azpiegituretan Fraisoro egoitzako laborategia eta egoitza nagusia birgaitzeko 1,1 milioi euroko kopurua emango dute. Beste

ekipamendu hauetarako ere laguntza izango da: Iurreamendi egoitza birgaitzeko, Tolosako ekipamendu eszenikoa —Leidor eta Euskal Herria plazako kultur zentroa—, Usabalgo kiroldegia, etxebizitza babes- tuak Tolosan, Ortzadar programa Tolosan eta Belauntzan eta etxerik gabeko pertsonak Tolosan. Azkenik bidegorrietarako ere beste partida berezia izango da.

## Hurrengo urteetarako

Hurrengo ekitaldietako ez-ohiko plana ere aurreratu du Foru Aldundiak. Fraisoroko laborategia eta egoitza birgaitzeko (beste 1,6 milioi), Tolosako ekipamendu eszenikorako (beste 1,3 milioi), Usabalgo kiroldegirako (beste 0,6), Alegia-Amezketeta errepidea sendotzeko (0,6), etxebizitza babes- tuak, etxerik gabeko pertsonak, Gureak, Ortzadar Belauntza...

### Batxilergoa

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natura eta Osasun Zientziak

### Lanbide Zikloak

#### Ziklo ertainak

- Merkataritza Teknikaria
- Administrazio-Kudeaketa
- Informatika Sistemien Ustiapena

#### Goi mailako cikloak

- Informatika Sistemien Administrazioa
- Informatika Aplikazioen Garapena
- Merkataritza
- Administrazioa eta Finantza
- Merkataritza-Kudeaketa eta Marketing
- Nazioarteko Merkataritza

## Nazaret Zentroa

Jardunaldi irekiak Nazaret zentroan:

Martxoak 11	Ostirala	18:00 etan.
Martxoak 12	Larunbata	11:00 etan.

gizarte elkartea  
aldea soziala

Nazaret zentroa • Aldeberri, 16 • 48941 • 48941 Tolosa  
94 901 0000 • 94 901 0000 • www.nazaretzentroa.com

FUTBOLA ▶

JOXEMI SAIZAR

Lesakako Beti Gazte taldea aurretik jarri arren, Tolosa futbol taldeak buelta eman partiduari eta erraz irabazi zuen atzo Berazubín. Lidergoan jarraitzen du, baina orain bakarrik.

Aste osoan egindako euri eta elurren ondorioz, zelaia oso pisu jarri zen. Dominatzen hasi zen Tolosa, baina kontraeraso batean lesakarrak aurrean jarri ziren markagailuan. Une horiek izan ziren okerrak, urdinak «arinegi» ibili baitziren, Jose Manuel Luluaga entrenatzailearen esanetan.

Talde osoak «jarrera ona» erakutsi Luluagaren hitzetan eta partiduari buelta emateko adorea erakutsi zuen. Lasak berdindu, eta batez ere, Elolak markagailua aurretik jarri ondoren partiduak tolosarren kolore urdina hartu zuen. Erabat menderatu zuen talde nafarra, baita bigarren zatian ere, inongo aukerarik utzi gabe.

Atzo Xabier Lacallek debutatu zuen. Lehen ere Tolosan jokatu zuen eta Lagun Onak-en aritu ondoren, denboraldi honetan Albaceteko Rada taldean aritu da orain arte, 3. Mailan. «Ondo prestatuta etorri eta ondo aritu da. Eskuinean genuen hutsunerako ondo etorriko zaigu», zioen Luluagak.

Lidergoan bakarrik da Tolosa, puntu berekin zegoen Ordiziak berdinketa lortu zuelako Trintxerpen. Orain bi puntura dago. EHUK gaur jokatu du. Hurrengo larunbatean Zubietan jokatu du Tolosak, Oriokoren aurka.

# Markagailuari buelta eman eta erraz irabazi du Tolosak

Beti Gazte aurretik jarri zen, baina tolosarrek lau gol egin zituzten, horietako bi Lasak; lidergoan bakarrik jarri da



Tolosarrek aldagelatik ateratzen; hirugarrena, atzo debutatu zuen Xabier Lacalle da. JOXEMI SAIZAR

TOLOSA ▶ 4

BETI GAZTE ▶ 1

**Tolosa.** Apeztebea; Lacalle; Jon Garmendia (75m. Unai Garmendia); Sagastibeltza; Romero; Artola; Orue; Elola (81m. Zuloaga); Lasak (85m. Valor); Regilaga (61m. Garagartza) eta Prados (74m. Ilunbe).

**Beti Gazte.** Susperregi; Lasaga (15m. Larrui); Baleztena; Zudaire; Tellebea (60m. Pikabea); Irazoki; Apeztegia (45m. Almandoz); Bertiz; Saralegi; Irigoien (75m. Juanena) eta Hernandezena.

**Golak.** 0-1: Irigoienek (15m.); 1-1: Lasak (30m.); 2-1: Elolak (45m.); 3-1: Sagastibeltzak (60m.); 4-1: Lasak (85m.).

**Arbitroa.** Larrañaga, Gallego eta Reguero marrazainekin.

**Txartel horiak.** Elola, Zudaire eta Larrui.


ERLIJIOA ▶

## Garizumako hitzaldiak Santa Maria parrokian

Bihartik ostegunera izango dira, Maria Jesus Amundarainek zuzenduta

ERREDAKZIOA

Santa Maria parrokiak Garizumako hitzaldiak antolatu ditu euskaraz, Maria Jesus Amundarain Familia Santuko erlijioa amezketarrek zuzenduta. «sinismena argitu eta indartu eta esperantza sakontzeko». Bihartik asteazkenan izango dira 16:00etatik 20:00etara —ordu batetik aurrera luzatu gabe— parrokiako areto nagusian. Ostegunean berri, otoitzaldia izango da parrokian.



## Villabona - Kultura



— Haur antzerki —  
— musikala —

# XOMORROAK

Martxoak 6 Igandea • Arratsaldeko 17:00etan  
GUREA ARETOAN



**Udal Kultura Batzordea**



Gipuzkoako Foru Aldundia  
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

gure bizitzako 25 ERILKURRERAK

## ASTE SANTURIK onena

<b>Madrid</b>	<b>245€</b>	Guztira 40.765 Pta
09/20h 03/20h 3-egun - 4-gu. Autobus, Chamartin Hotel****, Gostak berrak, ANDA ETA TOLEDORAND TANGOOK BARRI, 12 duak berrak: sarrak.		
<b>Galicia</b>	<b>195€</b>	32.445 Pta
03/20h 03/20h (gaur ibiltzeko). Autobus, Hotel** Marten orea.		
<b>Lisboa</b>	<b>275€</b>	45.756 Pta
03/20h 03/20h (gaur ibiltzeko). Autobus, Novotel hotel****, Gostak berrak.		
<b>Italia</b>	<b>350€</b>	58.235 Pta
VENECIA • FLORENCIA, FLORENCIA • ROMA • FLORENCIA • VENECIA, 03/20h 03/20h (gaur ibiltzeko). Autobus, Hotel****, Gostak berrak. IRUITEA BARRI.		
<b>París</b>	<b>289€</b>	48.086 Pta
03/20h 03/20h (gaur ibiltzeko). Autobus, Hotel**, Gostak berrak. PARIS IRUITEA BARRI.		
<b>París-Futuroscope</b>	<b>264€</b>	43.926 Pta
03/20h 03/20h (gaur ibiltzeko). Autobus, Hotel**, Gostak berrak. PARIS IRUITEA BARRI. HAUEK BARRI: FUTUROSCOPEO SARRIA.		





merezi duzu

www.viajeseroski.es

## AZOKA ▶

## Hotza eta euria nagusi Tolosako atzoko azokan

Aurtengo gazta berria berrikuntza izan zen; aziendetan, berriez, oilandak agertu ziren

PABLO ALBERDI

Hotza eta euria nagusitu ziren atzo Tolosako azokaz, salmenten erritmoa eta bisitarien kopurua mantsotuz eta murriztuz, pasa den astearekin konparatuz, beti ere.

Elurraren eragina nabaritu izan zen atzokoan, barazki batzuetan, izotzak kaltea eragin zuen, eta bestetan kopurua murriztu. Porruak eta azenarioak, ordea, oso itxura ona eskaini zuten, ia 7 euroan salduz sorta batzuk.

Gazta berria ere izan zen nagusi mahai askotan. 12 euroan saldu zen eta arrakasta handia lortu zuen. Honez gain gazta gehiago izan zen: ardi gazta 12 eurotik 20 euro arteko tartean saldu zen, nahastua 9 eurotik 12 euro arte, eta behi gazta, 7 tik 9 ra.

Abereen zerrendan izan ziren berrikuntzak: oilanda frantsesa, txuri eta beltza, 7,5 euroan saldutakoa.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Izai Douglassia	0,33	-
Larrosa ondoak	6,50	-
Porru landarea	2,40	-
<b>Bertako produktuak</b>		
Tomatea	2,00	3,50
Azalorea	1,00	-
Ogi biologikoa	1,77	2,53
<b>Produktu ekologikoak</b>		
Brusela-aza	1,00	-
Babarrun zuria	6,00	-
Inbaxurrak	4,00	6,00

## GERONTOLOGIKOA ▶

## Gerontologikoaren inguruan sortutako zalantzak salatuz

Gerontologikoaren Aldeko Plataformakoei dei egin diete partidu politikoei, arazoari benetako irtenbidea emateko soluzioak bilatzen has daitezen



Gerontologikoaren aldeko aldarrikapenak adi entzun zituzten. J. ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Gerontologikoa ez ixteko eskatu zuten beste behin ere ehundaka lagunek, Gerontologikoaren Aldeko Plataformak deituta, atzo Tolosako kaleetan barrena egindako manifestazioan.

Triangulotik hasi eta herriari itzulia eman ondoren, udaletxe aurrean izan zuen amaiera manifestazioak atzokoan. Gerontologikoko egoiliarrek, euren senitartekoei eta bertako langileek osatutako plataformak egindako deialdiarekin bat

egin zuten herrian presentzia duten sindikatu guztiek, hainbat auzo elkartek, Amarozkoa kasu, eta Tolosako Udaleko bertako zenbait talde politikok, EA-k, EB-k eta Tolosaldea Bizirik-ek zehazki, eta beren ordezkariak bertan izan ziren. Antolatzaileak, gustura agertu ziren, jendearen erantzuna ikusitakoan. Adin eta mota guztietako jendea bildu baitzen bertara, beren umeekin joandako gurasoak, helduak, adinduak, bestek beste. Aipatzekoa da, bide batez, herriko denda, taberna, komertzioeta-

ko ate eta erakusleho askotan ere «Gerontologikoa ez itxi» zioten kartelak, non-nahi ikus zitezkeela, manifestazioaren ibilbidean zehar joanda.

Eta esaldi horixe bera izan zen manifestariak gehien oihukatutako zutena, «Gureak, gurekin», «Herrian zahartu nahi dugu», «Gu ere zahartuko gara»... modukoak eta herriko alkatearen eta Gizarte Politikarako diputatuari zuzendutako beste zenbaiten artean.

Horrela bada, plaza Zaharrean iritsi bezain laister, Gerontologikoaren Aldeko Plataformako kideek hartu zuten hitza eta manifestariak adi-adi zituztela, deialdiaren zergatiak eta helburuak azaldu zituzten, irakurritako agiri batekin.

Orohar, Gerontologikoaren inguruko gertakarietan «instituzioen aldetik somatutako 'hotza'» eta «zurrumurrus inguratuta eta erdi ezkutuan hartutako erabakiak», salatu zituzten, horiek «gizatasunik gabek» izan zirela joz, «gure senide egoiliarren eta gure bizitzak drama batean» bihurtu izanagatik.

Horren harira, Jokin Bildarratz, Tolosako alkateari zuzendutako zitaiozko bereziki, senideak: «Foru Aldundiaren aurrean babesik gabe eta bakarrik utzi» izana egotzi zioten, beren senide egoiliarren «etxea izan den Gerontologikotik» atera nahi ez eta, senideek «txantaia eta presioak jasan» izan zituztenean.

Bestalde, argi utzi nahi izan zuten, eta honetakoan ere udal buruari zuzendu zitzaizkion, beren senideak lurramendira eramanez, ez dela bere merituz izan, «Tolosalderako ho-



Manifestazio buruko lema. J. A.

rreren beharrezkoa den Gerontologikoaren defentsan, kalera ateratzea eta 'herri eragile' lanetan aritzea derrigorputa aurkitu direnena baiziki. Eta argi utzi nahi izan zuten era berean, erabaki horrekin ez dela arazoa konpontzen. Diputazio teknikiariak eginiko ikerketa aitatz, «eskualderako 75 erresidencia plaza falta» direla eman zuten jakitera.

## Benetako soluzioak

Gauzak horrela, alkate eta zinegotziak dei egin zioten «arazoari benetako irtenbidea emateko». Bide horretan, Gerontologikoko egoiliarren senideek aurrerago antolatutako asmoa duten mahai ingururako «bakoitzak bere eskaintzak landu eta ekartzeko» gonbidapena egin zieten alderdi politikozuztietan.

Plaza Zaharrean bilduta zuden guztien aurrean, deitzaileek egindako lehendabiziko hitzak, ordea, eskerrak emateko egin zituzten, «daguntza eta elkartasun adierazpenengatik», bai herritarrentzat, bai herriko dendari, tabernari eta komertziantentzat ere, «Gerontologikoa ez itxi» kartelak ikusgarri erakustegatik.

hitza **txokoa** lagunena

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

IBARRA ▶ KIROLA

# Partaidetza altua izan du X. Elkartasun Aerobik Maratoiak

Ibarrako Belabieta kiroldegian izan zen atzo arratsaldean; hiru ordu iraun zuen eta 99 lagunek hartu zuten parte



Partaideen artean mutil gutxi batzuk ere baziren, nahiz eta emakume gehiago izan. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Hotzaren aurka gogor borrokatu behar izan zuten atzo Belabietan elkartu ziren neska-mutilek, X. Elkartasun Aerobik Maratoiaren saltoka hasi aurretik. Ordu erdi lehenago bildu ziren parte-hartzaile gehienak Ibarran eta kirol arropa soinean jantzita kantxaratu ziren.

16:30ean lehen irakaslea taularatu zen beroketa saioa burutzeko eta orduan ahaztu zituzten bertaratuek hotzak eta bestelakoak. Guztira 99 partaidek eman zuten izena Aerobik maratoni honetan. «Oso pozik gaude partaidetzarekin, izan ere atzoko eguraldia ikusirik

jende gutxiago animatuko zela pentsatu genuen», aitortu zuen Marisa Rodero antolatzaileak. Aurreko urteko partaidetza maila mantendu da, beraz —aurreko urtean 117 pertsonak hartu zuten parte—. Hala ere, aerobik kirola gero eta arrakastatsua dela agerian geratu zen. Eskualdekoak bertakoak baziren, baina ez ziren bakarrak izan eta jendea urrutia ere ailegatu zen Ibarra-raino, Lasarte, Donostia eta Elgoibar, besteak beste.

Hiru ordu inguru iraun zuen maratoiak eta tarte honetan Andoain, Lasarte, Urnieta, Tolosa eta Ibarrako sei irakasle igo ziren taulara, euren dantza

erakusteko. Irakasle hauek ere epaile lana egin zuten, dantzan ari ez zirenean. Dantza mota guztiak jorratu zituzten, hala nola saltsa eta *hip-hop*-a. Irakasleen dantzen artean bost minutuko atsedena izan zuten partaideek, ura edan eta minutu batzuk deskantsatu ahal izateko.

Atzokoa Gipuzkoan egiten den aerobik zirkuitu baten bar-

nean kokatzen den maratoi izan zen. Ibarran eginkoa bigarrenaren zen —aurrekoa Errenterian egin zen— eta guztira bost izango dira. Aerobik maratoni guztiak burutzen dituzten guztiak sari berezia eskuratuko dute. Atzoko sariak maila ezberdinetan banatu zituzten: Ibarrako lehenengoari, irakasle hoberenari, 40 urte gorako senior hoberenari, 14 eta 47 urteko junior hoberenari, 18 eta 39 urte bitarteko amateur hoberenari eta, orokorrean, lehendabiziko lau saikatuak.

## Aurten maila «oso altua»

Antolatzaile, irakasle eta epaileek bat egin zuten aurtengo jendearen maila «oso altua» nabarmentzerakoan. «Batzuk oso onak dira eta zaila izango da irabazleak aukeratzeko», azaldu zuen Roderok. Irabazleak erabakitzeke zeuden erredakzioa ixterakoan.

Atzokoa denek izan zuten taula guztiak betetzeko aukera, ez baitzen inor kaleratua izan; hau izan zen X. Elkartasun Aerobik Maratoiaren berrikuntzarikoa bat. Jendea ere gustura azaldu zen erabaki honekin, partaideen ustez, garrantzitsua kirola egitea eta arratsalde atsegina igarotzea baita. Antolatzaileek ere maratoi hau «herrikoa» dela esan zuten eta «horretan datza zehazki bere xarma guztia». Ibarrako Udalak, herriko dendariak eta Insaluz enpresa izan ziren atzoko laguntzaile nagusiak. DYA-ko langileak ere han izan ziren arratsalde osoan, zaurituei laguntza emateko helburuz. Atzokoa bildutako diru guztia San Bartolomeko misio taldeak dituen proiektuak laguntzeko bideratuko da.

Baina Belabietara ez ziren soilik kirola egitera zetozenak gerturatu. Izan ere, asko izan ziren bi euroko sarrera ordainduta harmailetan eseri ziren begiluzeak, ikusmena alaitzeko, ikuskizunaz gozatzeko zein datorren urterako erueda ondo hartzeko.

**J.M. Ilepaindegia**  
Eraberritzearen ondoren,  
zuekin gaude berriz  
Martxoak 8,  
asteartetik aurrera  
Leitza 8 • TOLOSA

**KONTSU TABERNA (OREXA)**  
Ostiral gauetik igande  
gau arte asteburuko  
menua **12 €**  
Telf.: 943 68 21 54

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaidea.** Medikua: 65 23 39  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Tolosa.** Anbulatorioa. 461111  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Morant, R. Zabalarreta 1, (Tolosa). 943 67 38 49  
**Gimeno.** Elbarren 52 (Leitza) 112  
**Bihar.** Ugarte, M.T. Euskal Herria 46 (Ibarra) 943 67 32 74  
**Larraya, M.I.** Elbarren 55 (Leitza) 112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaidea.** 687 41 00 22  
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegaldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaidea.** 687 41 01 18.  
leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### LANA

#### Zute ilepaindegia.

Espereintzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 18:00etara; larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara. Deitu 943 67 19 34 zenbakira.

#### Sukaldaria eta tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera 943 68 21 54 zenbakira

**Hezitzaileak.** Haur eskolako hezitzaile lan-poltza. Baldintzak: HH Magisteritza edota HH Goi Mailako teknika. EGA edo baliokidea. Kurrikuluma 289 posta kutxara bidali.

### ALOKAIRUAN

**Garajea.** Lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. Deitu 609 43 59 07 edo 665 75 87 74 zenbakietara.  
**Etxea.** Nafarroa etorbidean etxea alokatzen da. Bere altzariarekin. 660 789 705

## iragarki laburrak ▶

**Peoiak.** Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.  
**Sukaldari laguntzaileak,** sukaldariak, zerbitzariak. Plaza

libreak: ikastetxeak, egoitzak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 65 01 93  
**Ostalaritza.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurlaritza. 943 65 01 93 telefonoa.

**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Haur Hezkuntza.** 106 plaza gaztelaniz, 52 euskaraz. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Mantenua.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Plaza libreak: erakunde publikoak. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Plaza libreak: udalak, Eusko Jaurlaritza, Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usturbil, Irun, Beasain, Alizo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.

**Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 6a, igandea ▶ III. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Arabako Udala, Alkiza, Argita, Alzo, Arretxe, Arriola, Areso, Balamán, Belantza, Berastegi, Berro, Etxebarri, Herrialde, Irujo, Nafarroa, Nava, Lizarra, Lizarra, Orendain, Ormaiztegui, Tolosa, Villabona, Zuzaki

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurfari-tza,  
Kultura Sala

EUSKO MUNDUAK  
KULTURAREN ERAGILEA

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldean



beroena

08

hotzena

03

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldean



ELURRA  
ARALARREN

Guardetxe: bai  
Albi: bai

Pagomari: bai  
Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN  
ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### ANTZERKIA

**Ibarra.** *May en Klowcierto*, May Gorostiagaren eskutik. 17:00etan, Gaztekean.  
**II. Mendi Astearen baitan.**  
**Villabona.** *Xomorroak* haur antzerkia. 17:00etan, Gurea zinema aretoan.

### DEIALDIAK

**Tolosa.** Oargi elkarteak mendiko marxa antolatu du Boi haranera (Pirinioak, Lleida), hilaren 24tik 28ra. Izen-ematea, 637 83 03 80 telefono zenbakian.  
**Tolosa.** Mikel Lopetegui ziegan hilik agertu zela 17 urte bete direla eta, lore eskaintza 12:00etan, Urkizun, haren monolitoan.  
**Tolosaldea.** Korrika Laguntzaile egiteko txartelak salgai Raku, Elurra eta Laiar tabernetan eta Kopl-bat dendan, 12 eurotan. Pin bat eta txartela jaso eta Euskal Herriko 300 dendatan beharpenak izango ditu.  
**Ugarte.** Emakumeen bazkaria egingo dute asteartean. Izen-ematea elkartearen eta tabernan.

### ZINEMA

**Leizta.** *Como una imagen*. 19:30ean, zinema aretoan.  
**Tolosa.** *Solo un beso*. 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean.

# Nikaraguaren alde

**TOLOSA ▶ Malpaisilloko emakumeen zentroa egiteko laguntza ari da jasotzen**  
**Amarozko auzo elkarteak Kultur Etxean jarri duen Elkartasun Azokan**

### ERREDAKZIOA

**A**utoen kateak, arropak, altzariak, pitxiak, ontziak, idazmakinak, liburuak, diskoak, jostailuak, koadroak... Denetatik dago. Kazetariaren aurrean lau txakolin botila eraman ditu batek. Tolosaldeko Kultur Etxean daude. Zertarako? Amaro auzo elkarteak antolatutako Elkartasun Azoka merke-merke saltzeko. Norako elkartasuna? Nikaraguako Malpaisilloko emakumeen zentroa egiteko.

Amarozko lokaletan jaso dituzte material hauek, bertako jendeak, Tolosa, Ibarra eta Tolosaldeko beste herrietakoek emanda. Ibarako Misisio Taldeari esker bereziak luzatu nahi dizkiote antolatzaileek. Gaur ere ikusteko, erosteko eta laguntzako aukera izango da, 10:00etatik 14:00etara.

«Herri horretan emakumeak bakarri bizi dira, bere umeekin. Beraiek atara behar dute herria aurrera. Horregatik zentro bat eraiki nahi dute: oinarriko eskola, sexologia eta lan batzuk ikasi —soldadura, ura ekartzen, baratza—...Ura ekarrita daukate eta orain lan batzuk egin behar dituzte», azal-



Denetatik aurki daitezke Elkartasun Azokan; gaur da ikusteko eta erosteko azken eguna. JAIONE ASTIBIA

du du antolatzaileetako batek. Bizpahiru urte daramate amaroztarrek Nikaraguako herri hartara laguntza bidaltzen. Xochilt Alcalá du izena 1991etik emakumeen alde lan egiten duen erakundeak eta izen horixe jarriko diote eraikiko duten emakume zentro berriari.

Elkartasun Azoka ostiralean hasi zen eta gaur amaituko da. Guztira, auzo elkarteak hamar bat lagun aritu dira bertan lanean.

Badakizue, euro baten truke —liburuek eta koadroek gehi-go balio dute— Nikaraguaren aldeko laguntza eman dezakizue gaur Kultur Etxean.


## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Leire Otaegi Urbieto  
(Goiatz). Bihar 5 urte.  
Zorionak ebekoaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Irati Elozegi (Zizurkil).  
Bihar 6 urte.  
Zorionak familiaren partetik.



**AUPA IGOR!!**  
Gurekin izan arte, gu geldituko gaitunik ezta! Earrak ga, ba gu!  
Besarkadak eta muxuak!!



**AUPA EMILIO!**  
Eutsi goian!  
Bota bertsoa... borrokalari.  
Villabonako ezker abertzalea.

**HITZA,**  
zorian agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEIZTA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

egin zaitez  
**korrika**  
laguntzailea

dek

marxoaren  
5 eta 6an

**zurre herrian!**

ni ere bai!